

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Ostirala, 2011ko maiatzaren 6a. VIII. urtea. 2.221. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info

Lantegietan, udaletxeetan eta ikastetxeetan sindikatuek geldialdiak egingo dituzte

Euskal gehiengo sindikalak elkarretaratzek deitu ditu 'Bilduren auzia' salatzeko, 'Eskubide guztiak denontzat, ilegalizatorik ez!' lelopean

Espainiako Auzitegi Konstituzionalak Bilduren aldeko erabakia hartuko balu, ez dituzte kontzentrazioak egingo ◦3

Gipuzkoako Herriarteko Txapelketan itzulerako partidak jokatu dituzte


Bidegoian, Berrobi, Albiztur, Amezketa eta Amasa-Villabona ari dira lehia jokatzeko ◦6



A. IMAZ

→ **Bigarren sektorean ere emakumeek «bereizketarik» izan ez dezaten.**

Leitzaldeko Bilgune Feministak eta LABek ekimen berezia jarri dute martxan: industriaren sektorean lan egin nahi duten emakume guztien datuak eta curriculumak bilduko dituzte hilabete honetan. Asmo hauen berri emateko hitzaldi informatiboa egingo dute gaur, 19:00etan, Leitzako Aurrera elkarteetan. ◦7



Iñaki Irazabalbeitia

Tolosako Aralar alderdiko alkategaia

«Gure jarduera politikoa jendearen beharrak asetzeko programatu dugu»

Aralarko kideari Ezker Batuarekin jarraitzea gustatuko litzaioke, baina ez dela posible izan dio

Elkarrizketa ◦2



TOLOSALDEA GOIMAILAKO L.H. INSTITUTUA



“ATE IREKIEN EGUNA”

MAIATZAK 10, ASTEARTEA

15:00etatik 21:00etara

Ikasle, guraso, langile, enpresa eta interesatu guztiei zuzendua.

Ikastetxeko instalazioak eta eskaintza ezagutzeko bisita gidatua.

943 65 11 47 • www.tolosaldea.com

Mugikorrean informazio gehiago
Mezu bat bidali: **TOLOSALDEA** idatziz 5533ra

Udal eta Foru Hauteskundeak 2011 →**Itzea Urkizu** Tolosa

Itziar Irazabalbeitia (Donostia, 1957) Aralar alderdiko Tolosako alkategaia da. Politikaz eta gizarte arazoez aritu da HiritzArekin.

Lehenik eta behin, azalduko al zenituzke hurrengo legealdirako zuen programa politikoaeren ildo nagusiak?

Guk, lanerako zappi ardatz nagusi ditugu: pertsonak, ekonomia, udal administrazioa, euskal nortasuna eta kultura, ingurugiroa eta jasangarritasuna, Tolosa hiriburu eta, azkenik, azpiegiturak eta obrak. Atal horietako bakoitza, noski, puntu zehatzagoen bidez garatu dugu. Dena den, azpimarratu nahi nuke gure jardura politikoa jendearen beharrak asetzeko programatu dugula, eta tolosar guztien ongizatea duela helburu; udal politikak pertsonengan zentratu behar du.

Esualdean hasi dira AHTren lanak, eta herritarren protestak ere izan dira. Zein iritzi duzu azpiegitura honen inguruan?

Aralarren AHTren inguruan duen jarrera ezaguna da. Ez gauden horren alde, eta guk 'tren soziala' deiturikoa bultzatzen dugu: Euskal Herriko hiriez gain, eskualdeak ere elkartuko dituen tren bat, herritarren eguneroko desplazamenduei erantzuteko. Ez dut uste AHTk horri erantzuten dionik; eliteen bidaiei erantzuten die. Gainera, desplazamendu luzeak ditu helburu. Hau ez dator bat Euskal Herriak behar duen garraio azpiegiturarekin, Eusko Jaurlaritzak publiko egiten dituen datuen arabera, EAEko eguneroko desplazamenduen %90 baino gehiago eskualde barnekoa baita.

Zabor bilketaren inguruko hikamika nagusi da azken hilabeteotan, eta aukera daude mahai gainean. Zein da zure iritzia?

Tolosaldeko mankomunitatean zabor organikoaren bilketa selektiboa bultzatu behar da. Herri txikietan zerbait egiten da konpostagailuak bideratzen-eta. Hala ere, arazoa zabor organikoak kantitate handitan biltzea da; irtenbide majikorik ez dago. Tokian tokiko ezaugarrien arabera erabaki behar da irtenbide baten edo bestearen alde egin behar den. Ezer ez da zuria edo beltza.

Osasun publikoaren gaia ere pil-pilean dago Tolosaldean. Zein da zuen jarrera auzi honetan?

Oso argi daukagu, osasun publikoaren alde gaudela. Unibertsal-tasuna bermatzen du, hau da, guztieki baldintza berdinetan zerbitzua ematea. Kalitatea ere bermatzen du, eta osasun publikoa, gainera, ez da gutxi batzuen negozioa izango. Garbi ikusten dugu Tolosaldeak eskualdeko ospitale publikoa behar duela, eta hori lorzeko urratsak egin behar direla. Aralarrek, bere udal taldearen bi-



ASIER IMAZ

Itziar Irazabalbeitia > Aralar-eko Tolosako alkategaia

Aurten lehenengoz, Aralar alderdia bakarrik aurkeztuko da Tolosan, Udal Hauteskundeetara. Pertsonen ongizateari begirako programa politikoa prestatu dute.

«Udaleko oposizio bakarra EB-Aralar izan da azken legealdian»

dez, mozioa aurkeztu zuen udalean, eta mozio hau eskualdeko beste herri batzuetara zabaldu da, Tolosaldea Garatzen-en bidez. Legebiltzarrean ere lanean ari gara honen alde. Irtenbiderik egokiena Asuncion klinika publiko egitea litzateke. Argi dago, behintzat, zerotik eskualdeko ospitale bat eraikitzea ez dela bideragarria.

Azken legealdian, EBrekin koalizioan aritu zaretelanean Tolosako Udalean. Zerk bultzatu zaituzte legealdi honetan bakarrik aurkeztera?

Enrique Torquemadak eta biok lau urte hauetan egin dugun lanaren balorazioa oso positiboa da nire aldetik. Gure talde politikoa-ren asmoa, legealdi honetan ere elkarrekin aritzea zen, baina ez da posible izan. Enrique Torquemadak urte hasieran dimititu egin zuen, eta honek hasierako aurreikuspenekin jarraitzea oztopatu du.

Honen harira, zein da azken lau urteotako balantzea bai zuen alderdiari, bai besteie dagokienez?

Legeak bi zinegotzi eman zizkigun, baina bigarrena guri ez zegokigula kontsideratu genuen, eta ez genuen postua hartu. Nik Torquemada ordezkatu dut udalean, berak postua utzi ondoren. Honek muga batzuk jarri dizkigu, eguneroko lanean. Alderdi txikia

gara, eta EAJk udalean gehiengo absolutua izan du; gainera, beste alderdi guztiak, PSE, PP, EA eta Hamaikabat, bat etorri dira ia gai garrantzitsu guztietan. Oro har, esan daiteke EB-Aralar izan dela udalean egon den oposizio bakarra. Bestalde, arantza txiki bat ere badugu, euskararen ordenantzarekin. Guk ordenantza berritzea bultzatu genuen, gaur egungo errealtate soziolinguistikora egokitzeko. Prozesu parte-hartzailea izan zen, herritar zenbaitzuek parte hartu zuten. Legearekin topo egin dugu, eta bertan behar utzi behar izan dugu ordenantza berritzea ideia, bi aukera zeudelako: orain indarrean dagoenarekin jarraitzea, edo euskararen ordenantzarik gabe geratzea. Oraingo ordenantzak sakondu daitezkeen puntu positiboak badituenez, hauek sakondu behar dira euskararen normalizazio prozesuan aurrera egiteko.

ETAren azken agiriaren ondotik, aro berri bat ireki da Euskal Herrian. Nola ikusten duzu garai berri hau?

Aldaketa somatzen da, baina hau hasiera besterik ez da. ETAk behin betiko su-etena aldarrikatu behar duela eta armak utzi behar dituela uste dut; Euskal Herria indarkeria politikoaeren garaia amaitu dela esan behar dute. Garrantzitsuak dira ezker abertzale-

ak azken hilabeteotan eman dituen urratsak, eta bide horretan aurrera jarraitu behar dute; nolabait, Aralarrek duela hamar urte hasi zuen bidea da hori. Areago joan, eta indarkeria horren inguruan sortu den kultura baten ondorioak ere gainditu egin behar dira, politika egiteko modua ikuspegitik. Abangoardiaren kontzeptua baztertu egin behar da eguneroko politika egiterako orduan. Agian aurreiritzi bat izango da, baina oraindik pauso hori ez du eman ezker abertzaleak.

Aipatu duzun moduan pasa den legealdian legez kanpo utzitako ANV alderdiari zegozkion bozkek zirela eta, zure zinegotzi postuari uko egin zenion. Konstituzionalak Bildu baliogabetuko balu, zein izango litzateke Aralarren jarrera?

Praktikan egin litekeena ez dago- kio Aralarri soilik, beste alderdiei ere bai. Hitz egin beharreko kontua da. Duela lau urteko egoera berean egongo bagina, gauza bera egingo genuke, udaleko azken batzarrean esan nuen bezala; betiere, postu horiek PP eta PSEri bidea hausteko baliagarriak ez balira, noski. Jarrera etiko garbia dugu horren inguruan, eta Alderdi Legearen ondorioak ez dira hitzekin bakarrik defendatu behar; praktikan ere defendatu be-

har dira, eta legealdi honetan hori Tolosako Udalean egin dugun bakarrak izan gara. EAK, EAJak eta PSEk ere, ordea, zinegotzi postuak bazituzten gure egoera berean.

Krisi egoera honetan, nola ikusten duzu udalen kudeaketa?

Zaila, dirua falta baita. Espainian gauzak antolatuta dauden bezala, udalen diru iturri garrantzitsuena hirigintza da. Honek behe- ra egin du, eta ondorioz, udalek ere bai. Horregatik, Udal Legean udalak finantzatzeko bideak zein izango diren garbi zehaztu behar dira; bide hauek udalek normal- tasun funtzionatzeko nahikoak izan behar dute. Tolosako Udale- ra bueltatuz, kezka bat ere badugu: ez dugu uste udalaren egoera ekonomikoa esaten den bezain egokia denik. Kezkatzeko moduko datuak daude, eta hurrengo lau urteetan udalean izango direnak, sakon aztertutako behar dute bene- tateko ekonomi egoera.

Europako parlamentuko kidea zara, Herrien Europa Koalizioarekin. Nola- koa da esperientzia?

Esperientzia txikia izan da, orain- dik ez bainaz parlamentura joan. Orain ERCKo ordezkaria dago, eta ni 2013an joango naiz. Bitarte- an bada elkarlana talde guztien artean. Oso interesgarria izango dela iruditzen zait.

Publikoak ez diren euskarazko hedabideek egoera aztertu dugu, eta erakunde eta eragileei eskaera zehatzak egin dizkiegu, adibidez, diru laguntzak. Zein iritzi duzu?

Euskarazko hedabideen egoera kezkatzekoa da, ikuspegi ekonomiko- tik, batetik. Gainera, badirudi euskal gizartearen beharrak asetzera ez direla iristen. Euska- rak eta Euskal Herriak hedabide sendoak behar ditu, eta botere pub- likoak eskura duen guztia egin behar du hauei laguntzeko. Arala- rrek horren alde egingo du. Hala ere, hedabideek produktua- ren etorkizunaz gogoeta egin be- har dute.

↓ Gertutik

■ **Zer egiten duzu politikatik deskonektatzeko?** Baratza koskor bat dut, eta bizikleta, mendia eta itsasoan igeri egitea gustoko ditut. Irakurri eta idatzi ere egiten dut, eta familiarekin egoten naiz.

■ **Herritar bezala, zerk ernegatzen zaitu egunerokoan?** Bizit- zan munduko azkarrenak bali- ra bezala joaten direnek erneg- atzen naute. Adibidez, errepidean ilarak daudenean, eta ezkerretik auto bat aurrerai- no joaten denean gertatzen da hori. Errespetua guztiz galdu dugula erakusten dute horrela- koek.

Euskal gehiengo sindikala kalera irtengo da 'Bildu auzia' salatzeke

Eskualdeko lantegi, udaletxe eta ikastetxeetan elkarretaratzeak egingo dituzte, gaur

Asier Imaz

Euskal gehiengo sindikalak, ELA-LAB, STEE/EILAS-EHNE eta HIRUK, elkarretaratzeak antolatu dituzte gaurko, eskualdeko lantegi, udaletxe eta ikastetxeetan. Mobilizazio hauekin Espainiako Auzitegi Gorenak Bilduren inguruan hartutako erabakia salatuta nahi dute. Dena den, Auzitegi Konstituzionalak bart hartutako erabakia, Bildu legeztatzea izango balitz, elkarretaratzeak bertan behera geratuko liriateke.

Bestalde aipatu behar da, Bildu Konstituzioaren Zea Maysen kontzertua antolatuta du gaurko Gaztetxean, 22:30ean. Hurrengo igandean, aldiz, egun guztiko festa egongo da txekor jate eta guzti. Txartelak Itzuli tabernan aurkitzen dira.

↓ Elkarretaratzeak

- **Tolosako Udala.** Plaza Zaharrean 11:30-12:00.
- **Villabonako Udala.** Plazan, 11:30-12:00.
- **Zizurkilgo Udala.** Joxe Arregi plazan, 11:30-12:00.
- **Ibarrako Udala.** Plazan 11:30-12:00.
- **Iruarko Udala.** Udaletxe aurrean 11:30-12:00.
- **Anoetako Udala.** Udaletxe aurrean 11:30-12:00.
- **Lizartzako Udala/Insalus.** Txirrita plazan 11:30-12:00.
- **Etxesa/Bost/Ariznabarreta/Leibi.** 11:00-11:30.
- **Unipapel/Endaki/Camepak.** 13:30-14:30.
- **Aralar papeleria.** 13:45-14:15.
- **Kalparsoro.** 13:45-14:15.
- **Artea.** 13:30-14:30.
- **Laskorain ikastola.** 11:30-12:00.
- **Uranga.** 13:45-14:15.
- **Man.** 11:00-11:30.
- **Voith.** 13:30-14:00.
- **Zuhaizki.** 11:30-12:00.
- **Pasaban.** 11:30-12:00.

Irudia ◦ Zizurkil eta Villabona



BILDUREN ZERRENDAK AURKEZTUZ

Zizurkilen, goian, Bilduren zerrendak udaletxe aurrean aurkeztu zituzten. Alkatagai bezala Jose Mari Luengo joango da. Ondoren, Nerea Lizarraga, Eva Usandizaga, Jose Manuel Izagirre, Aritz Esnaola eta Leire Zubeldia aurkitzen dira zerren-

dan. Villabonaren kasuan (beheko argazkia) Galdar Azkue izango da alkatagia. Jarraian Rosa Maria Arregi, Urko Arin, Nora Urbizu, Ignazio Urreta, Gorka Lizaso, Laura Santos eta Juan Luis Irizusta aurkitzen dira. HITZA

Hitzaldiz betetako Aste Iraultzailea aurkeztu dute

Faxismoaren aurka borrokatu zirenak omentzeko dituzte maiatzaren 12an, ostegunean

A. Imaz Tolosa

Euskal Herria Sozialista aldi-zikariko kideek eta Engels Ateneoak Aste Iraultzailea antolatu dute maiatzaren 9tik 13ra. Hitzaldiz beteriko ekimena izango da, egunero bat egongo baita Errementa-

↓ Hitzaldiak Engels Ateneoan, Errementari kalea 8. zenbakian

EGITARUA

■ **Maiatzak 9, astelehena.** 19:30etan, gazteleraz, *Amerika Latinako prozesu iraultzailea*. Hizlaria: Cesar Alcazar, Manos Fuera Venezuelako kide mexikarra.

ri kalean dagoen Engels Ateneoan. Antolatzaileek maiatzaren 12ko hitzaldia azpimarratu nahi izan dute, «faxismoaren aurka bo-

■ **Maiatzak 10, asteartea.** 19:30ean, euskaraz, *Sozialismo utopikoa eta sozialismo zientifikoa*. Hizlaria: Iker Otermin, Euskal Herria Sozialistako kidea. ■ **Maiatzak 11, asteazkena.** 19:30ean, euskaraz, *Langile*

rrokatu zutenen aldeko omenaldia» izango baita. Hitzaldiaren izenburua *Gerra zibila eta iraultza sozialista (1936-*

mugimenduaren alternatiba erasoaren aurka. Hizlaria: Ibon Artoleta, Euskal Herria Sozialistako kidea. ■ **Maiatzak 12, osteguna.** 19:30ean, gazteleraz, *Gerra zibila eta iraultza sozialista (1936-1939)*. Hizlaria: Juan Ignazio Ra-

39) da, eta Juan Ignazio Ramos izango da hizlaria. Ramosek garai hartako gertaera garrantzitsuenak aztertuko ditu sakon. EAJK

mos, Federiko Engels Fundazio-ko kidea.

■ **Maiatzak 13, ostirala.** 19:30ean izango da hitzaldia, euskaraz, *Herri arabiarretako iraultza*. Hizlaria: Aitzol Arribilaga, Euskal Herria Sozialistako kidea.

jokatu zuen papera zein modutan desitxuratu den ere aztertuko du Federiko Engels Fundazioko kideak.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Sukaldaria Villabonan.** Sukaldaria behar da eguneko menuak, kazuelak eta taberna batego sukalde arduradun izateko. Euskara jakitea ezinbestekoa izango da, baita antzeko lanetan eskarmentua izatea ere. Bidali curriculum, villabona2011@gmail.com helbidera. Edo informazioa gehiago,

661 36 94 24 telefonora deitu eskura daiteke.

■ **Ileapaindegia.** Esperientziadun pertsona bat behar dugu lanaldi osorako. Interesa duen edonork, bidali dezala curriculum, metxa2@yahoo.es helbidera.

■ **Ileapaindegia.** Tolosako ileapaindegi batek esperientziadun pertsona bat behar du lanera-

ko. Interesatu duen edonork deitu dezake 625 70 50 59 telefono zenbakira.

ALOKAIRUA

■ **Etxebizitza.** Etxebizitza alokatzeko moduan dago Iruan. 80 metro karratu ditu, bi logela eta garaje txikia aukeran. Interesatuak, 636 53 00 00 telefono zenbakira deitu dezakete.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



KONTZERTU BEREZIA BAIGORRIKO ELIZAN

Laskorain ikastolako abesbatzak kontzertu berezi batean parte hartzeko aukera izan zuen pasa den apirilaren 30ean. Baigorriko elizan ospatu zen kontzertua, eta ondorengo artistek parte hartu zuten abesbatzako kideez gain: Migel Zeberio tolosarrak zuzentzen duen Et Incar-

natus hari orkestrak, Ken Zazpi taldeko Eñaut Elorrieta abeslariak, Amaren Alabak laukote zuberotarrak eta Baigorriko gaiteroek, besteren artean. Laskoraingo arduradunek argitu dutenez, «esperientzia oso aberasgarria bizi izan zuten ikastolatik joandako neska-muti-

lek eta beraien gurasoek, eta Xabier Lete eta Mikel Laboaren doinuez gain, kantu herrikoiez gozatzeko aukera izan zuten gerturatutakoek». Kontzertuaren aitzakiarekin asteburua Baigorriin igaro zuten ikastolatik joandako 75 lagunek. HITZA

Tolosaldeko 7 ordezkari, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan

Artola, Iguaran lehengusuak, Gorostazu, Gorostidi, Irazu eta Muñoa izango dira lehia

Rebeka Calvo

Igandean hasiko da zortzi hilabete iraungo duen Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa. Orion izango dira saioak, goizez eta arratsaldez, eta bertan eskualdeko ordezkari bat izango da: Alegiako Mikel Artola. Gazteak arratsaldeko saioan hartuko du parte.

Artolarekin batera sailkapen fasean Villabonako Oihana eta Beñat Iguaran lehengusuek, Berastegiko Iñigo Gorostartzuk, eta Abaltzisketako Adur Gorostidirik hartuko dute parte.

Hauei final zortzirenetan Berriboko Unai Muñoa gehituko

zaie (Lazkaon irailaren 25ean izango da saioa), eta Larraulgo Jexux Mari Irazu finalaurdenetan (Oñatin urriaren 22an).

Saioak Alegian eta Amezketan
Sailkapen faseko saioak ekaina bitarte luzatuko dira, eta saioetako batzuk eskualdean izango dira. Alegian hilaren 14an izango dira, goizez 11:30ean eta arratsaldez 17:30ean, kultur etxean, nahiz eta ez den eskualdeko ordezkari izango bertan. Amezketan ere izango dira saioak hilaren 28an. Kultur etxean ariko dira 11:30ean eta 17:30ean, eta Irati Arrietak zuzenduko du saioa.

Hurrengo faseetan ere izango dira saioak Tolosaldean. Batetik, urriaren 23an izango da, eta bestetik, Tolosan azaroaren 27an.

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan 76 bertsolarik hartuko dute parte, eta 60 hasiko dira lehen fasean.

↓ Kirol jarduera

GOIKO KANTXA

- **Bihar.** Saskibaloia: Triki Take-Hke part 10:30ean, eta Take-Mondragon Uni eta Triki Takr-Ke part 12:00etan. Eskubaloia: Tolosa-Ereintza 16:00etan. Areto futbola: Laskorain-Elorrioko 18:00etan.
- **Etzi.** Saskibaloia: Take-Astigarra 11:50ean.

BEHEKO KANTXA

- **Gaur.** Eskola Kirolaren baitan areto futbola 09:30etik aurrera. Eskubaloia: Tolosa-Zarautz 12:00etan, eta Tolosa-Ereintza 18:00etan. Areto futbola: Laskorain-Deba 16:00etan.
- **Etzi.** Areto futbola: Laskorain-Zubitu.

FUTBOL ZELAIA

- **Bihar.** Tolosa-Urola 09:30ean; Tolosa-Aloña Mendi 11:00etan; eta Tolosa-Dumboa 16:00etan.
- **Etzi.** Tolosa-Real Union 11:30ean.

Film ugari ikusi ahal izango dira Leidor antzokian

‘Cuestion de principios’ eta ‘El mundo según Barney’ pelikulak ikusi ahal izango dira bihar

R.C.

Tolosan zine programazio oparora ikusteko aukera izango da datorren egunetan.

Bihar bertan *Cuestion de principios* filma ikusi ahal izango da 19:30ean, eta 22:30etik aurrera leku berean *El mundo según Barney* pelikula.

Etzi, igandea, bi film eskainiko dituzte: *Glup* 17:00etan, eta *El mundo según Barney* 19:30ean eta 22:00etan. Astelehenean 20:30ean *Cuestion de principios* ikusi ahal izango da. Asteartean eta asteazkenean, aldiz, Mendi Tour ekime-

naren txanda izango da; asteartean 19:00etan *The asgard project*, *Entre nos* eta *Le monde gaston rebuffat* eskainiko dituzte, eta asteazkenean 19:00etan *The pinnacle* (Gasteizko zinemaldiko film onenaren saria jaso zuen), *Uruca* (animaziozko film laburra), *Bi gailur hamaika istorio bidean*, eta *Play gravity 2: The other side*.

Ostegunean *Miel* filmaren txanda izango da. 19:15ean eta 21:45ean eskainiko dute.



Artisau Jogurtak

Mahala

TOLOSako EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

samane o **ORIXE TOLOSAN**

Matrícula epea: urtarrilaren 31tik otsailaren 11ra

→ Laburrak

Une eta Zain taldeen kontzertua, bertan behera

TOLOSAN Gaur Bonborean izatekoak ziren Une eta Zain taldeen kontzertuak bertan behera geratu direla jakinarazi dute bertako arduradunek. Bihar 22:30ean Ero eta Noizean Behin taldeen emanaldia ikusteko aukera izango da.

Osasun publikoaren aldeko bilera, bihar

TOLOSAN Osasun Publikoaren Aldeko plataformak bilera informatiboa egingo du bihar, 11:30ean musika eskolako batzar aretoan (Rondilla kalea, 34). Bertan espezialitateen ambulatorioa ez ixteko eta Tolosalderako ospitale publikoa sortzearen alde antolatutako ekitaldien, manifestazioaren eta bestelako jardueren berri emango dute.

→ **Laburrak****Ur Apalategik jaso du Beterri Liburu saria**

ASTEASU ▶ 111 Akademiako kideek erabakita, Ur Apalategi lapurtarrak irabazi du 2010eko Beterriko Liburu Ohorezko Literatur Aipamena. *Fikzioaren izterrak* ipuin liburuarekin eskeratu du. Atzo jaso zuen saria Asteasuko udaletxeko ekitaldi aretoan. Idazlearekin batera, Udaleko, Eusko Jauritzako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak izan ziren. Baita 111 Akademiako Eloi Egibar eta Manuel Laramendi Kultur Bazkuneko Jon Unanue ere.

Alkizalete Eusko Label Txapelketan ariko da

ASTEASU ▶ 23 urte azpikoan kategorian lehiatuko da Jokin Alkizalete asteasuarrak. Igandean jokatu da Kuartango herrian. Eloi Kortxero araiarra, eta Jon Rodriguez segobiarra izango ditu aurkari Alkizaleteak. Ahalik eta punturik gehiena lortzen saiatuko da.

Bihar 22:30ean Ruper Ordorikaren kontzertua

VILLABONA ▶ Olaederra Kiroldegian eskainiko du Ruper Ordorika bakarari bere kontzertua. 22:30ean hasiko da, Billabonara Herri Ekimenak antolatu duen kontzertua. Egunean bertan sarrerak salgai egongo dira, eta 10 euro ordaindu beharko da.

'Aguila Roja' filma eskainiko dute Gurean

VILLABONA ▶ Villabonako Gurea Zineman asteburu honetan *Aguila Roja* filma eskainiko dute. Larunbatean, 19:30ean eta 22:15ean izango da. Igandean, 19:30ean, eta astelehenean berriz, 21:30ean egongo da.

Autogestio jardunaldiak Errebote plazan, bihar

VILLABONA ▶ 11:00etatik aurrera, tailerrak egingo dituzte: elektrizitatea, bizikleta konponketa, eguzki plaka bidez argia, ogia eta pizza egitea. 14:00etan bazkaria, eta jarraian, 16:00etan hasita kantauroak ariko dira. Tombola ere jarriko dute.

Alkartasuna Elkarteko bilkura, asteartean

ANOETA ▶ Anoetako Jubilatuen Alkartasuna Biltokiak bilkura egingo du asteartean. 18:30ean egingo dute. Bertan jorratuko den gaia: elkarteko lehendakaria aukeratzeko eta izendatzea izango da.

Loatzoko XIX. Igoera Jaitsieran parte hartzeko aukera, igandean

Izena egunean bertan eman beharko da Uxo-Toki Elkartean, eta doan izango da; irteera 10:30ean egingo dute

Eneritz Maiz Amasa

Urtero bezala, aurten ere Loatzoko XIX. Igoera-Jaitsiera egingo da, Amasan. Normalean apirilko azken igandean egin ohi badute ere, aurten Aste Santua tarteko, maiatzera atzeratu dute, eta igandean izango da. Uxo-Toki Elkartek eta Amasako Gazteek antolatzen dute, Udalaren laguntzarekin.

Nahi duen guztiak har dezake parte, eta izen-ematea doan da. Uxo-Toki Elkartean eman beharko da. 10:30ean hasiko da lasterketa, Amasako plazatik. Bidea marikatuta egongo da, eta Loatzoko



Ikusmina sortzen du Amasan egiten den lasterketak. A. OTEZABAL

puntan zein helmugan hartuko dituzte lasterkariak denborak.

Plazan giro polita sortuko da, hamaiketakoaren bueltan; Loatzoko puntara animatza doarentzat eta helmugan bertan geratzen denarentzat izango da,

Uxo-Toki Elkartean eskutik. Jarraian sari banaketa egingo dute: lehen hiru emakumeek eta gizonak, hurrenez hurren, 120 euro eta txapela, 80 euro eta 60 euro jasoko dituzte. Zozketak ere egingo dituzte.

Txapela jantzi du Teddy Martinezek Gipuzkoako Txapelketan

Danena Halterofiliako pultsulariak A Coruñan jokatu den II. Espainiako Txapelketan izan dira

E. Maiz Villabona/Zizurkil

Apirilaren 15ean Zarautzen, Gipuzkoako Senior Txapelketa ospatu zen, eta bertan Villabona eta Zizurkilgo Danena Halterofilia Taldeak parte hartu zuen emaitza onak lortuz.

85 kiloko kategorian Francisco Gonzalez bigarren postuan sailkatu zen. 94 kiloko kategorian, Teddy Martinezek lehenengo postua lortu zuen. Eta sailkapen orokorrean, Teddy Martinezek txapela lortu zuen.

Apirilaren 30ean berriz, A Coruñan jokatu zen II. Espainiako Junior Txapelketan izan ziren pultsulariak. 56 kiloko kategorian, Kellyn Quintana 10. postuan sailkatu zen. 62 kiloko kategorian, Iker Hernandez 3. postuan; 69 kiloko kategorian, Igor Sasiain 2. postuan; eta 69 kiloko kategorian, Adrian Sasiain 15. postuan geratu zen.

Irudia Amasa-Villabona



ZELARAINEN KOADROA

Apirilaren 30ean Zizurkilan ospatu zen II. Aiztondora! egunean, Peio Zelarain Villabonako euskal presoak eginiko koadro eder bat zozketatu zuten. Zerbaki saritua 650 izan zen, eta Beatriz Ozaetari tokatu zitzaion. Maite Ortiz, Zelarainen emazteak eman zion saria, Beatriz Ozaetari. HITZA



MUSIKA

RUPER ORDORIKA VILLABONAN

Maiatzak 7
Olaederra kiroldegian, gaueko 22:30etan

Sarrerak Iratzer elkartea, Iru Aldeta eta Rebote taberna salgai. Egunean bertan sarrerak. 10 €

Billabonara herri ekimenak (presoen sende eta lagunek) antolatuta

GAZTE INFORMAZIO ZERBITZUA (-29 URTE):

- **HAIURRAK ETA FAMILIAK:** udako gutiak, adin gutiak: www.gipuzkoagazte.net
- **NERABEAK:** "Gaste Oporaldia" (GFAko udakoak) programako izen-emateak: www.gipuzkoagazte.net
- **GAZTEAK:** aste santuko bidaiak, solidarioak, begirale tituludunentzako lan eskaintzak...
- **INFORMAZIO GUTZIA:** www.gipuzkoagazte.net weborria. Gurean: "Bilaka"

NERABEENTZAKO ZERBITZUA (12-17):

Egitarrak berezia pazkoa astean!
Proposamenak egiteko bidea: www.gipuzkoagazte.net weborriaren bitartez bidali, gazteleku postontzian paper bat utzi edo jakinarazko ikuslagun bitartez etan.

AUTOGESTIO JARDUNALDIAK

"BIZITZEA DESIRA IZANIK, OKUPATZEA BEHARRA DA"

9:30 MUNTIA
11:00 etan aurrera **TAILERRAK** elektrizitatea, bizikleta konponketa, eguzki plaka bidez argia, ogia eta pizza.
14:00 BAZKARIA / COMIDA
16:00 KANTAUTOREAK

Tombola
Bazkarian eta tombolan jasotako dirua Aiztondora balerako okupazio erresistentziak kubara bidaltzeko da. El dinero recogido en la comida y el sorteo se destinara a la caja de resistencia de la ocupacion del valle de Aiztondora

AGENDA

AMASAN KROSA LOATZOKO XIX IGOERA-JEITSIERA

Maiatzak 6
Goizeko 10:30etan
Izen ematea: uxu-toki elkartean (dohain)

LOATZO MUSIKAKO EMANALDIA

Maiatzak 13 Gurea Zinean, Arratsaldeko 19:30etan

ONDDO ROCK

Maiatzak 14
Billabonako plazan
Ate irekiera: 18:00etan
Sarrerak: Aurrez 10 € / Bertan 14 €

SAN ISIDRO EGUNA

Maiatzak 15
Amasako San Isidro Kofradiak antolatuta.

ANDER LIPUSEKIN TAILERRA.

Maiatzak 21
Ordutegia: 9:30-13:30.
Izen ematea: 943 69 16 55 Tarifa: 10 €

XL Town

Maiatzak 27
Antzerkia
22:30etan Pikor Antzerki konpainiaren Eskutik. Sarrera doan

SENDETZE EGUNA

Maiatzak 28
Goizeko 11:00etan **Patinetako ginkana** Egurkiko 12:00etan
Aiztondora udaleko **harrera instituzionala** (Villabona, Asteasu, Aduna eta Zizurkil)
Egurkiko 12:30etan
Herriaren **Harrera: txupinazioa**
Pregoiak: Gaste Asanblada
13:00etan **Buru handiak**
14:30etan **Bazkaria** (Bertsolariak tritilariek eta abar)
17:00etan **Bizitza Zirkuan Potxin eta Patxin** Errebote plazan
20:30etan **Kontzertua eta berbena** errebote plazan.

Eskualdeko bost herrien etorkizuna Herriarteko Txapelketan, gaur jokoan

Bidegoian, Berrobi, Albiztur, Amezketa eta Amasa-Villabona ari dira kanporaketa pasatzeko lehian

Imanol Garcia

Eskualdeko bost herriek itzuliko partida dute gaur Herriarteko Pilotari Txapelketan. Bi kanporaketetan aurkariak dira, gainera: Bidegoian eta Berrobi, eta Albiztur eta Amezketa. Besteak, Amasa-Villabonak, Astigarragaren aurka du neurketa.

Bidegoianek 2-1 irabazi zion Berrobiri bere etxean, eta beraz aukera gehiago ditu kanporaketa pasatzeko. Kadeteetan 16-22 eta jubenetan 8-22 irabazi zuten, eta nagusietan 22-17 galdu. Bidegoianetik kadeteetan Otaegi Aburu-

za, jubenetan Zelaia-Zinkunegi eta nagusietan Galarraga-Galarraga aritu ziren. Berrobiren alde, kadeteetan Zubeldia-Erauskin, jubenetan Esnaola-Elustondo eta nagusietan Irazusta-Ugartemendia aritu ziren.

Itzuliko partida 19:00etan izango da, Bidegoianen. Bertako taldeko arduradunak, Luis Galarragak, azaldu duenez, «Berrobin lortutako emaitzen ondoren, normalki aurrera egingo dugu. Partida bat eta 15 tantoko abantaila ditugu». Hori bai, jubenetan partida «parekatuagoa» izango dela dio.

Arkaitz Aurkia Berrobiko taldeko arduradunak «aukera gutxi» daudela dio kanporaketa gainditzeko, baina «irabaztera» joango direla nabarmendu du. Lauzpabost urte pasatu dira Berrobiri ez dela aurkezten Herriartekoan. «Hiru pilotariri fitxa egin



Berrobiren eta Bidegoianen arteko nagusien joaneko partida. M. UGARTEMENDIA

behar izan diogu parte hartzeko, pilota utzita baitzuten», dio Aurkiak. «Aurrera-Saiak elkarteak lagundu digu zeregin horretan». Bi herrien arteko «giro ona» nabarmendu dute arduradunek.

Albiztur eta Amezketa arteko norgehiagoka lehenengoan alde dago joanekoaren ondoren. 2-1 irabazi zuten albizturtarrek.

Kadeteetan 22-3 irabazi zuten amezketarrek, jubenetan 7-22 eta nagusietan 3-22 irabazi zuten albizturtarrek. Albizturrik kadeteetan Lazkano-Orbegozo, jubenetan Balerdi-Labaka eta nagusietan Telleria-Telletxea aritu ziren. Gaurkoan, kadeteetan Orbegozo-Galarraga ariko dira. Amezketatik kadeteetan Altuna-

Zabala, jubenetan Gallurralde-Otamendi eta nagusietan Otaegi-Beloki aritu ziren.

Albizturgo arduradunak, Gorca Arandiak, dioenez, «esperantzak ditugu kanporaketa gainditzeko. Agian Amezketak beste pilotari batzuk sartzen ditu. Ikusi beharko dugu». Xalton Zabala Amezketako arduradunak dioenez, «kadeteetan eta jubenetan genuen esperantza, baina jubenetan atzelaria lesionatu egin zen eta infantil bat sartu behar izan genuen. Praktikoki kanporatuta gaude». Itzulikoa Albizturren izango da, 19:00etan.

Amasa-Villabonak 2-1 galdu zuten Astigarragaren aurka. Kadeteetan 22-10 irabazi zuten, eta jubenetan 5-22 eta nagusietan 6-22 galdu. Kadeteetan Ormazabal-Maiz, jubenetan Arrue-Otaño eta nagusietan Lizaso-Gibitegi aritu ziren. Astigarragan jokatu ko dute itzulikoa, 21:00etan.

Bixente Etxaniz Amasa-Villabonako arduradunak dioenez, «kadeteetan irabazi genuen, baina jubenetan Astigarragak Gipuzkoako bikote onenatarikoa du. Zaila daukagu kanporaketa

Euskal kultura Alurren eskutik, Galizian

Harrera beroa eta txalo zaparrada jaso dituzte Chantada eta Lain herrietan egindako emanaldietan

I. Garcia Ibarra

Alurr Dantza Taldea Galiziako Chantada (Lugo) eta Lalin (Pontevedra) herrietan izan da aurreko astean. Lalin herriko institutuko irakasle batek luzatu zion gonbidapena Alurr taldeari. Euskal Herriko dantzak, jantziak eta musika tresnak Lalin eta Chantadako institutuetakoa eta Lalineko musika kontserbatorioko gazteei erakustea zen bere asmoa. Azken batean, euskal ohiturak eta tradizioak bertatik bertara ezagutu nahi zituzten.

Alurr taldeko 25 dantzari gazte,



Alurr Dantza Taldea Chantadako institutuan. HITZA

4 musikari eta 4 begirale izan ziren bidaian. Lehen egunean Chantadako institutuan 600 ikusentzule gazteren aurrean aritu ziren dantza eta musika erakustaldia eginez. «Sekulako harrera eta txalo beroak» jaso zituzten, Alurr

taldetik azaldu dutenez. Bigarren egunean, Santiago hiria ezagutzeko aukera izan zuten bidaia-riek.

Hirugarren egunean, Lalin herriko musika kontserbatorioan aritu ziren, 400 gazteren aurrean.

Musika kontserbatorio horretako ikasleak ez ezik, Lalineko institutuko gazteak ziren ikus-entzuleak. Alurr taldeko kideek Chantadan aurkeztu zuten saio berbera egin zuten Lalinen, eta ikus-entzuleen erantzuna «ikaragarria» izan zen, «ordura arte sekula ez baitugu hain txaloaldi beroa eta luzea jaso», diote Alurr taldekoek.

Ibarrara «pozik eta gustura» itzuli dira. «Dantzariak ederki aritu ziren, oso ondo prestaturik joan baitziren», azaldu dute taldeak. «Oso dantzari gazteak dira, 10 eta 12 urte bitartean, emozio handiko egunak izan dituzte, eta bizi duten esperientzia oso garrantzitsua izan da haientzat».

Alurretik gaineratu dutenez, «Chantada eta Lalin herrietako institutuetakoa gazteekin izan duten harremana eta egin duten kulturen eta tradizioen trukea aipagarria da».

→ Laburrak

'Garai bateko Alegia II' antolatzen ari dira

ALEGIA ▶ Alegiako kultur batzordea *Garai bateko Alegia II* ekitaldia antolatzen ari da hilaren 29rako. Garai bateko eskola argazkiak behar dituzte egun horretako ekimen bat osatzeko. Kultur etxera eraman behar dira hilaren 13a baino lehen eta bi astetan bueltatuko zaizkie. Bestalde, egun horretan herri bazkaria egingo da. Txartelak salgai jarriko dira hilaren 9tik 24ra, Iskiñan, Jubilatuetan eta kultur etxean.

'Amezketatik etxetik' liburua salgai udaletxean

AMEZKETA ▶ Jose Mari Oterminek idatzitako *Amezketatik etxetik* liburua salgai jarri du udalak. 15 eurotan erosi daiteke udaletxean bertan.

NUTRIZIO KONTSULTAK:

Asteartero eta ostegunero eskaintzen dira 'DietaFacil' etxearen eskutik, Laser depilazioa (TAHE). Prezio ezin hobeak.



farmadenda
_parafarmazia

lurre auzoa, 7 • Tolosa
Tel.: 943 57 95 28
farmadenda@gmail.com



→ **Laburrak****Perkusio tailerraren lehen saioa izango da, bihar**

LEITZA ▶ Leitzako Gazte Asanbladak, Gizarte Zerbitzuek eta Gozamenez Koordinadorak perkusio tailerra eta batukada antolatuta dituzte. Perkusio tailerra hiru egunetan egingo da. Lehen saioa bihar izango da, 17:00etan Leitzako Atekabertz gaztetxean.

Perurenak jasoko du Manuel Irujo saria

LEITZA ▶ Lizarrako Irujo Etxea elkarteak Iñaki Perurenari emango dio Manuel Irujo saria. Irujo etxea Lizarran Euskal Kultura bultzatuz eta zabalduz lan egiten duen elkartea da. Perurenak euskararen eta euskal kulturaren alde erakutsitako konpromisoa saritu nahi dute.

Ingo al deu? taldeak kontzertua eskainiko du

BERROBI ▶ Larunbatean bertso bazkaria egingo dute berrobitarrek herriko Bide Ona elkartearen. Unai Muñoak, Bixente Gorostidik eta Ander Lizarraldekin alaituko dute bazkalostea, beraien bertsoekin. Ondoren, trikiti doinuekin poteoa egingo da. 23:30etik aurrera, Begi Gorri gaztetxeak antolatuta, Ingo al deu? taldearen musika entzun ahal izango da.

San Isidro eguneko bazkarirako izen-ematea

BERASTEGI ▶ Urtero bezala, hilaren 15ean, San Isidro eguna ospatuko dute Berastegin. Egun horretan, mezaren ondoren, bazkaria egingo dute. Bazkari horretara joan nahi duenak Gaztainondo elkartearen izena eman beharko du maiatzaren 10a baino lehen.

Elkartasuna adierazteko eguna antolatu dute

Sagardo dastaketarekin hasiko dute eguna; ondoren elkarretaratzea eta bertso bazkaria ere egingo dituzte

M. U. Gaztelu

Gazteluko ezker abertzaleak Elkartasun Eguna antolatu du, biharko. Gazteluko kultur etxean izan ziren arazoan ondorioz, oraindik inputatuta dauden 12 lagunei eta bost langile kaleratu

elkartasuna adieraztea izango da helburua.

Horretarako, goizean hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Nahiz eta, bazkalostean ere festarekin jarraituko duten.

12:30ean emango diete hasiera Elkartasun Egunari, herriko plaza egingo duten sagardo dastaketarekin. 13:30ean elkarretaratzea egingo dute, leku berean.

14:00etan, berriz, denak kultur etxean egingo den bertso bazkariarango dira. Bazkalostea girotzen Maialen Lujanbio eta Iker Zubeldia bertsolariak ariko dira.

Bigarren sektorean lan egin nahi duten emakumeen curriculum bilketa egingo da

Bilgune Feministak eta LABek antolatuta hitzaldi informatiboa izango da gaur, 19:00etan, Aurreran

Maier Ugartemendia Leitza

Leitzaldeko Bilgune Feministak Sarriopapel lantegian edota orohar Leitzan bigarren sektorean lan egin nahi duten emakume guztien datuen eta curriculum bilketa egingo du maiatzean. Ondoren zerrenda horiek lantegiko kontratazioaz arduratzen direnei eta langileak kontratatzen dituen ETT enpresan entregatuko dira. Curriculumak jasotzeko epea

maiatzaren 22an amaituko da. Bi modutara bidali daitezke: e-mailez leitzaldekobilgunejefeminista@gmail.com helbidera bidalita edo Karrape irrartira emanda, astelehenetik ostiralera, 11:00etatik 14:00etara.

Asmo hauen berri emateko gaur, 19:00etan, Aurreran hitzaldi informatiboa egingo dute Bilgune Feministak eta LABek.

Ekimen honen helburua Leitzaldeko emakumeek jasaten duten «bereizkeria egoera honekin» amaitzea da. Uda iristear den honetan, lantegiaren lan-eskaerak igo egingo direla aurreikusten dute. Herriko gazteentzat «seku-lako aukera» izan beharko lukeela diote Bilgune Feministakoeek. Baina, hori teoria hutsean gera-

tzen omen da, azken 32 urteotan gizezkoak kontratatzen baitituzte.

Lantegian bertan emakumeen kontratazioa benetan egin dadin, Sarriopapel lantegian, LAB sindikatua lan-hitzarmenean emakumeek bertan eplegua izateko dute eskubidea defendatu dute, berriro.

Gainera, «indarrean dagoen Berdintasun legearen arabera 250 langiletik gorako enpresetan derrigortuta daude emakume kopuru bat kontratatzea, eta baita, Berdintasun kontseilu bat eratzera ere. Beraz, aldarrikapenak egia bilakatzeko garaia dela uste dute. «Emakumeek herrian lan egiteko» eskubidea dutela defenditzen baitute.

‘Agur Manhattan!’ antzezlan eskainiko du Xagu taldeak

Bihar, 20:00etan, Leitzako zineman eskainiko dute antzezlan hiru herritarrek

M. U. Leitza

Bihar *Agur Manhattan!* antzezlan eskainiko dute Leitzako Xagu Antzerki Taldeko kideek, Leitzako zineman.

Emanaldia 20:00etan izango da. Juani Barriola, Miel Mari Eloseggi Luze eta Sergio Merino herri-



Xagu antzerki taldea. HITZA

tarrak ariko dira antzezle lanean. Bertan Muñagorri doktorearen eta bere bezero xebeleen istorioen berri emango digute.

Estresa dela eta sortzen diren egoera xebeleen inguruan hitz egingo dute. Arrazoi hau dela eta, Muñagorri doktoreak bere gaixoei biziko dituen gora beherak azalduko dituzte hiru leitzarrek.

Ziur hirukote leitzarrek beraien talentua azalduz, bertaratzen direnei une polit bat pasaziko dietela.

● **Hilberria eta eskertza****ESKELAK**

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info

**MARGARITA LABURU URRESTARAZU**

Apirilaren 24an hil zen

Horrenbeste gauza erakutsi zenizkigun ta horren kasu gutxi egiten genizun...

Eneko eta Urko

DONOSTIA, 2011ko maiatzaren 5a

-ESKERTZA ETA MEZA-
Orain egun gutxi hil zen

MARIA JAUREGI GARMENDIA andrea

-Goian bego-



Ama eta amona denen laguna ona beti naturala ta maitagarria. Itzaliko ez zaigun kandelako argia



Agur maitia

Tolosa, 2011ko maiatzaren 6a

Bere **famillak** benetan eskertzen dizuete samin-agurra bidali eta bere hiletara etorri zineten guztioi eta gonbidatzen zaituzte bere arimaren alde. **ETZI GANDEAN**, goizeko **HAMAIKETAN**, Tolosako **SANTAMARIA** parroki elizan, izango den mezetera.

HILETAREN BALIOA Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsona bakoitzak bere neurriko hileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenez, aukera ekonomiko gutxieta egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Bereskurazena da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA EHORZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com



≈ 25°
≈ 18°

GOIZA	EURIA
ARRATSALDEA	EURIA
BEROENA	22°
HOTZENA	15°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1.687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketza, Anoeta, Areso, Belauntza,
Berastegi, Elduain, Hernialdea, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agurrak



Urte askoan Manex!

Manex Castro Zabaleta (Villabona). Muxu eta besarkada iraultzaileak! Eutsi gogor! Geurea da garaipena!



Urte askoan osaba Koko!

Animo eta eutsi gogor! Etxekoak.



Zorionak Pello!

Lizartzako ezker abertzalearen partetik. Irabaziko dugu.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.
- **Leitza.** Larraia, M.I, Elbarren, 95. 112.

BIHAR

- **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.
- **Leitza.** Larraia, M.I, Elbarren, 95. 112.

ETZI

- **Ibarra.** L. Lejeune, Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.
- **Leitza.** Larraia, M.I, Elbarren, 95. 112.

ETZIDAMU

- **Tolosa.** Bronte, C. I. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.
- **Betelu.** Carrillo. A. Kale Nagusia, 5. 112.
- **Irurtzun.** Mutiloa, A. M. San Martin, 5. 112.



Zorionak!

Pello (Lizartza). Bihar 51 urte. Muxu handi bat zure semeen, Ekain eta Hernaniren, eta familiaren partetik.



Urte askoan Manex!

Zure kuadrilaren partetik 27 muxu iraultzaile. Wuitxu.



Urte askoan Manex!

Besarkada eta animo handienak, ea noiz afaltzen dugun elkarrekin!